



Miramar Jauregiko Adierazpena

2006-04-08



Agiri hau sinatzen dugunok ideologia, tradizio eta sentimendu ezberdinak ditugun emakumeak gara; banatzen gaituena alde batera utzi eta batzen gaituenetik abiatuta, eta modu pertsonalean, bake eta adiskidetzearen bila urratsak esploratu nahi ditugu.

Agiri honekin ez dugu ez ezer ez inor ordezkatu nahi; gure asmo bakarra, bakoitza dagoen lekutik, egungo egoerari bultzada ematea da, bai eta konponbidea bilatze lanetan laguntzen saiatzea ere, aurreiritzirik eta baldintzarik gabeko elkarrizketa abiapuntu ona dela baieztatuz, pertsona guztien eskubideen errespetua ere den moduan.

Itxaropenezko orain eta etorkizun baten alde lan egiteak amankomuneko militantzia, geurea alde batera utziz, aintzat hartzera behartzen gaitu: bakearen aldeko militantzia, hain zuzen; izan ere, bakeak sabotadore ugari ditu beti gatazka guztietan eta argi izpi bat ekartzea ezinbestekoa da.

Beraz, emakumeok bakearen aldeko eragile aktibo izan behar dugula uste dugu, bai eta gure herrian ireki beharreko itxaropenezko prozesu berrian parte hartu behar dugula ere.

Gaur egun, eta bizi dugun gizarte ereduak kontuan hartuta, gure herriko bizitza politikoan gizon eta emakumeon papera ez da bera. Hala ere, eta guri ere dagokigun gatazka politikoaren ondorioak pairatzen ditugun heinean, konponbideak bilatzerakoan emakumeok ere izan behar dugun partehartzea eta protagonismoa aldarrikatzera gatoz. Konponbidearen subjektu aktibo izan behar dugu, orain arte gertatutakoaren subjektu izan garen bezala.

Horregatik hiru premisetan oinarritzen den etapa berri bat irekitzeko aukera ahalbidetu nahi dugu:

1.- Bakea erdiestea eskakizun kolektiboa eta lehentasun politikoa da. Denon lana da, eta ez da soilik eta bakarrik edozein motatako bortxakeria ez egotea. Bakearen kontzeptua, gure iritziz, ez dago hutsik, kontrakoa baizik. Guretzat, demokrazia eta gizarte justiziarekin zerikusia du, gatazka historikoak amaitutzat ematea eta, askatasunak zein eskubideak oinarri gisa, garai bat ixtea ahalbidetuko duen aldaketa prozesu batekin, alegia.

2.- Proiektu politiko guztiak defenda daitezke eta defendatu behar dira, bat bera ere inposatu gabe. Bide politiko eta demokratikoak erabiliz, baldintza berdinetan, proiektu politiko guztiak garatu eta gauzatzea bermatu eta ahalbidetuko duen eszenatoki demokratikoa bilatu behar da.

3.- Euskal gizarteak, Euskal Herriko hiritarrek, egungo marko juridiko-politikoak eraldatu, aldatu edo mantentzeko borondatea baldin badu, guztiok beharrezko diren berme demokratikoak eta adosturiko prozedura politikoak ezarri eta errespetatzeko konpromisoa

hartu beharko genuke, euskal gizarteak erabakitakoa errespetatua eta gauzatua izan dadin eta, beharrezkoa balitz, erabaki honek lege araudian bere isla izan dezan.

Zentzu honetan, gizonek eta emakumeok gizartean dugun partehartze ezberdina zehazten duten baldintzei aurre egin beharko zaiela uste dugu, egun ez dagoen eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko asmoz. Honek geure eskubideak, emakumezkoenak, aitortzea dakar, eta hori posible izango da bakarrik prozesuan partaide diren eragile guztien konpromiso sendoa baldin badago.

Agiri hau sinatzen dugunok konponbiderako aukerak egon badaudela uste dugu eta horretarako guztiok elkar onartu eta besteak duen egia ikusten saiatu behar dugulakoan gaude. Gure irudiko, adostasuna lortzearren hitz egitea aurrez eman beharreko urratsa da, eta hori demokrazia indartzea da, ez ahultzea.

Guk ez dugu hauteskundeetan arrakasta bilatzen, ezta gure aukera politiko, sindikal, sozial edo kulturalaren defentsa ere; ez dugu inoren txaloa bilatzen eta kritika itzelari ere ez diogu beldurrik; aitzitik, egungo egoerak bere horretan jarrai ez dezan lan egiteak merezi duela pentsatzera eramaten gaitu, konponbiderik nahi ez dutenek orain arte beti ezinezkotzat jo duten bideak sinesgarritasuna izan dezan.

Deklarazio hau sinatzen dugun emakumeok, beste bake prozesu batzuetan beste emakume batzuek egin duten bezala, prozesu hau blindatzearen alde lan egingo dugu, hondoa jo ez dezan, zapuztu ez dadin eta, prozesuan zehar nahiz konponbidean, emakumeok partaide aktibo izan gaitzen eta gure papera eta gure protagonismoa aldarrika ditzagun. Azken batean, prozesua eta bere irtenbidea sendotzeko hiritar guztien partehartzea ahalbidetuko duten berme demokratikoak ezartzearen alde lan egingo dugu.

Horregatik egiten dugu ekarpen hau; ideiak kontrajartzeko, hitz egiteko, hurbiltzeko, negoziatzeko, planteatzen ditugun oinarrietatik abiatuta bakea eraikitzeko lanean gure esku dagoen guztia jartzeko prest gaude.

Donostian, 2006ko apirilaren 8an

Euskaldunako adierazpena eta Zuhaitza-Ahotsak proiektua

2006-12-2

“Ahotsak” Emakume Taldeak, Bakearen Aldeko Emakumeen Ahotsak, beste Adierazpen publikoa egiten du, euskal bake prozesuaren ekarpen gisa. Bere osotasunean irakur ahal izateko, klika (sakatu) ezazu “testu osoa” izeneko lotura.

Berriro ere, Euskal Herriko gizarte gune desberdinetako emakumeok bildu gara gaur hemen bake eta normalizazio politikoaren aldeko gure konpromisoa berresteko. Gehiago gara, eta anitzagoak ere bai.

Nazioarte mailan gertatzen diren beste gatazka batzuen esperientziek (Israel, Kolonbia, Serbia eta abarrek) erakusten digute emakume talde askok, desberdintasun nazionalak, etnikoak, politikoak eta erligio alorrekoak gaindituz, bat egin dutela bake prozesuetan beraien ahotsak entzunarazteko. Eta beren parte-hartzea funtsezkoa izan dela konponbideak bilatzeko orduan.

Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak onartutako 1325 ebazpenak bake prozesuetan genero ikuspuntua aintzat har dezatela eskatzen die kide diren estatuei.

Emakumeok komunitate osoaren erdia osatzen dugu; beraz, irtenbidearen erdia ere izan behar dugu.

Ahotsak-en garbi dugu emakumeok gure parte-hartze aktiboarekin modu erabakigarrian eragiten ari garela gatazka historikoak behin-betiko ixteko balio izango duen prozesu bat martxan jartzeko.

Baldintzarik gabeko eta bazterkeriarik gabeko elkarrizketa erabiliz, eta pertsona guztien eskubideen errespetua oinarri gisa hartuz, alderdi politiko, sindikatu eta mugimendu feministako emakumeok batzen gaituena definitu dugu funtsezkoak eta demokratikoak diren printzipioak adostuz, hauek oinarri hartuta elkarrizketa politikoari hasiera emateko aukerak daudela uste dugularik.

Egindako ekarpen hau lurralde mailan eta eragile sozial, sindikal eta politikoen artean adostasun mailarik zabalena lortu duen akordioa da.

Gainera, akordio orotan genero ikuspuntua ekidin ezin daitekeen premisa dela erabat konbentziturata gaude; horregatik, ez dugu parte hartu nahi bakarrik, gure eskubideak aldarrikatuz egingo dugu, gure askatasunaz baliatuz eta gureak ere badiren guneetan behingoz eraginez.

Soilik emakumeok gure herrian, gure gizartean, paper aktiboa eta berdintasunean jokatzeko badugu, iraupena izango duen bakearen oinarriak ipini ahal izango ditugu eta justuagoa, demokratikoagoa eta berdintasunezkoagoa izango den gizarte bat sortzen lagunduko dugu.

Jakin badakigu ez dela lan erraza, eta bere garapenerako emakumeok erabaki guneetan zuzenean parte hartu behar dugula uste dugu.

Bake eta normalizazio politiko prozesu honetan ekarpenak egiteko eta komunikazio, gogoeta eta topaketarako guneak sortzeko asmoz, "ahotsak-en udal foroak" sustatzen ari gara. Foro hauek egoerak berdin jarrai ez dezan eta bakea atzeraezina izan dadin lanerako prest dauden emakume guztientzako elkarrizketa, topaketa eta ekarpen guneak izango dira.

Elkarrizketaren aldeko apustua egiten dugu, nahiz eta gizarteko talde guztiek askotan ez ulertu, eta honen prezioa ordaintzeko prest gaude. Badakigu, gizartearen errealitatetik kanpo ez gaudelako, une honetan egoera ez dela erraza eta zailtasunak egon badaudela. Bake prozesu eta irtenbide demokratiko guztien bilakaeran blokeoaz eta zailtasunez hitz egitera eta egoeraren gaineko erantzukizun desberdinak ezartzera bultzatzen duten faktore ugari egoten da.

Ahotsak-en bake prozesua atzeraezina izan dadin lan egiteko konpromisoa hartu dugu eta aukera historiko honetaz baliatu nahi dugu etorkizuneko belaunaldiak gizarte desberdin bat izan dezaten eta benetan horretaz disfrutatzeke aukera izan dezaten; horregatik,

ardura politikoak horrela eskatuta, konponbidean eragina duten eragile guztiei honako dei hau egiteko beharrea ikusten gara:

1. Topaguneak bila ditzatela eta, aldiz, desberdintasunak bazter ditzatela.
2. Besteari egiaren atal bat dagokiola aitortu diezaiotela.
3. Elkarrizketa baldintzarik gabe eta aurreiritzirik gabe erabil dezatela, gerturatzeko eta eztabaida politikorako tresna bezala eta adostasunak eta helburu politikoak lortzeko metodo bakarra bezala.
4. Zentzudun izan daitezela eta erantzukizunaz jokatzea dezatela konponbiderako prozedura demokratikoak zehazteko, oinarriak adosteko eta baloreak zehazteko.
5. Prozesuan eta adostasunean genero ikuspuntua ezinbesteko baloretzat hartu dezatela.

Hemen gauden emakumeon iritziz, gatazka politiko eta armatuen konponbide prozesuek eragiten dituzten munduko emakume guztiok batzen gaituena bilatu behar dugu eta bakearen aldeko agenda baten inguruan lan egin behar dugu. Helburu honek bultzaturik, nazioarte mailan beste gatazka batzuetan bakearen alde lanean ari diren emakumeen mugimenduekin harremanetan jarri gara, helburu hau garatzeko asmoz nazioarteko sare bat sortzearren.

Inplikatzeko garaia da eta, gainera, euskal emakumeok egin nahi dugu. Hau da bizitzea suertatu zaigun une historikoa. Bilboko Euskalduna Jauregian bildurik, euskal gizarte osoari, eta bereziki emakumeei, guztiok elkarrekin eta bakoitzak bere gunetik, itxaropenaren atea irekita izan dezagun eta ilusiozko aukera hau errealitate bihurtu dezagun dei egiten diegu.

Euskal Herrian, 2006ko abenduaren 2an

ZUHAITZAK EGITASMOA

Gernika eta Itsasu herrien bilguneak izan dira mendeetan zehar. Bertan, udalerrri bakoitzeko ordezkariak biltzen ziren guztien arazoez eztabaidatzeko. Gernika eta Itsasuko Arbolak, hainbat pentsaeren arteko eztabaida eta topaketarako guneak ziren; bazterkeria, baldintza eta mugarik gabe. Konponbideak, akordioa eta interesen arteko bakea aurkitzeko lekua. Arbolak esanahi historikoa dauka eta Ahotsak-eko emakumeok horixe berreskuratu nahi dugu etorkizunerako gako historiko berberetan. Eztabaidarako guneek, esan bezala, bakea lortzea, konponbidea bilatzea, gure hasierako dokumentuak zioen legez, garai bati amaiera ematea eta beste bat irekitzea izan behar dute ezaugarri, etorkizunak guztiontzako eskubide eta askatasunak berma ditzan.

Ahotsak osatzen dugun emakumeok, filosofia konpartitua defendatzen dugu: batzen gaituena abiaburu izango lukeen politikak aurrera egiteko beharra, alegia eta aldentzen gaituenean ez geratzea. Filosofia hau, konpartitzen dugunaren inguruan indarrak biltzea baino antagonismoak definitzen norberak berea zehazteko kezkatuago dagoen politika ofizialetik urruntzen da. Filosofia hau ekintza politikoan gauzatzen da; eztabaidatzea hain zuzen, adostu ahal izateko eta adostea aurrera egin ahal izateko.

Gure ustetan, ezinbesteko prozedura egokia da hau gaur egun Euskal Herrian bizi den bezalako bake prozesuan. Ahalik eta emakume gehien sartu behar dugu tartean Euskal Herrian zehar, euskal emakumeak benetako protagonista sentitu eta izan daitezen; bakearen aldeko eragile aktiboak izan daitezen, familian, haien lantokietan eta baita udaletan ere; azken finean jendartean.

Horrexegatik Ahotsak-eko emakumeok lanean ari gara gure mugimendua Euskal Herriko bazter guztietara hedatzeko. Horrela, emakume taldeak gure herrian ideia hauen alde lan egitea lortuko da.

Hori dela eta, egungo bake prozesurako, gure euskal ohituran arbolak duen milakako esangura errekuperatzean datzan ekimen bat aurrera eramatea pentsatu dugu. Euskal udalerriei leku zahar zein berri bat bilatzeko eskatuko litzaieke, bertan, zuhaitz bat landatu ahal izateko, elkarrizketa eta bakerako gune gisa. Batzen gaituena bilatzeko lekua izendatuko genuke: "batzen gaituena".

Zuhaitzak landatzeak, arbolak euskaldunontzat izan duen elkarrizketa zentzua aldarrikatzea adierako luke; herriz herri eta emakumeak horren parte eginez.

Euskal emakumeak, arbola landatzen, bakea posible dela adierazi nahi dugu, posible delako elkarrizketa eta bakezkoak egitea.